Eta gero, Ametsek ere esan duenez, kirol-instalazioetako inbertsioak, kiroldegikoak, Ellakuriko futbol zelaikoak, San Martingoak, Latiorron pista bat egitekoak, padelaren kontua lantzea Gardean, tenis jokalekua, estalkia, erdigunean pilotalekua izatea, exijitu egin dugu

Y luego lo que ha comentado Amets, también, las inversiones en instalaciones deportivas, en el polideportivo, campo de futbol de Ellakuri, de San Martín, una pista en Latiorro, instalaciones de Gardea con el tema de pádel, la cancha de tenis, la cubierta, el frontón en centro urbano, hemos

proiektua idazteko exekutatė gabe geratu den partida hori ere jasotzeko, San Roke egoitza zaharraren proiektuen kontua, eta gero, jakina, Antzokiarena eta landa-eremuetako saneamenduaren kontua.

exigido que se incorpore también esa partida que está sin ejecutarse para la redacción de un proyecto, el tema de los proyectos de la antigua residencia San Roque, y luego obviamente del Antzoki y un proyecto de saneamiento de núcleos rurales.

Gero ihardespen txandan erantzungo diet bozeramaileei. Eskerrik asko.

Luego en la réplica ya contestaré a los portavoces. Eskerrik asko.

**ALKATEA (eus.).-** Eskerrik asko Maider. Orain bigarren errondari ekingo diogu, hiru minutuko txanda. Iñigo.

**ALCALDE (eus.).-** Eskerrik asko, Maider. Es tiempo de comenzar la segunda ronda, turnos de tres minutos. Iñigo.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Bueno, ya os adelanto que voy a votar en contra de los Presupuestos. Por una parte, por la subida de los emolumentos al personal del Ayuntamiento. En obras, no me parecen mal las propuestas que se van a realizar pero tampoco creo que se han tenido en cuenta, como ya han dicho los anteriores grupos, los granitos de arena que hemos intentado poner los demás. No tengo más que decir, pero ya os digo que esto no, que me parece que no lo vamos a aprobar, este Presupuesto. Gracias.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Tira, aurrerantzen dizuet aurrekontuen aurkako botoa emango dudala. Alde batetik, udal langileen ordainsarien igoerarengatik. Obrei dagokienez, ez zaizkit txarto iruditzen egin diren proposamenak, baina aurreko taldeek esan dutenez, uste dut ez direla kontuan hartu gainerakook egiten saiatu garen ekarpenak. Ez dut esateko gauza gehiagorik, baina aurrerantzen dizuet iruditzen zaidala hau ez, ez dugula onetsiko aurrekontu hau. Eskerrik asko.

**ALKATEA (eus.).-** Eskerrik asko Iñigo. Txaro.

**ALCALDE (eus.).-** Eskerrik asko, Iñigo. Txaro.

**TXARO SARASUA DÍAZ (cast.).-** Bai, agerikoa denez, bakoitza bere jarrera politikoa aldeztera dator hona eta Alderdi Sozialistak berea defendatzen du, baina halaber, egia da, berriro diotsuet, analisi sakona egin behar dela. Zer den aurrekontu bat, zer jasotzen den bertan, eta jakinda % 80 langileria gastuak eta gastu arrunta dela, gainerakoan, daukaguna daukagu. Dena den, zer exekutatzen den ere jakin behar dugu, hemen altxortegiko gerakinak aipatzen ditugulako, baina altxortegiko gerakinak dira aurrezten joan garena, beraz, herria dagoen egoeran dago. Eta jakin behar dugu eta argi eta ozen esan behar dugu baita ere zerbitzu sektorean ziharduen eta jarduerak zituen jende ugari ari dela alde egiten, gazteak alde egiten ari direla. Eta hori guztia aipatu behar da. Ez dira soilik egin behar ziren baina egin ez diren inbertsio horiek, ez. Askoz gauza gehiago daude.

**TXARO SARASUA DÍAZ (cast.).-** Si, evidentemente, aquí cada uno viene a defender su posición política y el Partido Socialista está haciendo la defensa de la suya, pero también es verdad que, vuelvo a decir, hay que hacer un análisis exhaustivo. Que es un Presupuesto, que contempla un Presupuesto, y partiendo que tenemos el 80% en gastos de personal y gasto corriente, el resto es lo que hay. Pero también hay que saber qué se ejecuta, porque aquí vamos hablando del Remanente de Tesorería pero el Remanente de Tesorería significa que es lo que hemos ido ahorrando, por lo tanto la situación del pueblo es la que es. Y también hay que saber y hay que decir alto y claro, que hay mucha gente que tenía actividad empresarial del sector servicios que se está marchando, que nuestra juventud se está yendo. Y todo eso hay que hablarlo. No solamente son las inversiones estas que no se han hecho y que hay hacer, no. Hay muchas más cosas.

Guk ekarpen batzuk egin ditugu. Kiroldegiaren irisgarritasunari heldu behar zaio eta instalazioak handitu behar dira. Eta hobekuntzen inbertitu

Nosotros hemos hecho unas aportaciones. Hay que abordar la accesibilidad del polideportivo y la ampliación. Y por mucho que invirtamos en las

arren, oraindik ez zaio heldu garrantzitsuenari, irisgarritasunari. Jende askok dagoeneko ezin du krioldegian sartu. Pertsona nagusiei laguntza emateko programa ez dago eta egoteko itxaropenik ere ez dago. Gu eskatzen ari gara beste udalerrietan bezalaxe horri heltzea, dagoeneko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen teleasistentzia, ke eta gas detektoreak instalatu behar dira leku batzuetan, etxebizitza batzuetan, pertsona zaharrek ere eskubidea dutelako eta programa hori beste leku batzuetan egiten ari delako eta Eusko Jaurlaritza ere laguntzen ari delako.

mejoras, sigue estando sin abordar lo más importante, la accesibilidad. Mucha gente ya no puede acceder al polideportivo. Programa de apoyo a personas mayores, ni está ni se le espera. Nosotros estamos pidiendo que se aborden lo mismo que en otros municipios, aparte de la tele-asistencia, que ya se ofrece desde Gobierno Vasco, hay que instalar detectores de humo y gas en algunas zonas, en algunos domicilios, porque las personas mayores también tienen derecho y es un programa que se está haciendo en otros sitios y se está también apoyando desde Gobierno Vasco.

Pertsona nagusientzako gimnasia paratuak ere berritu behar dira. Zharakituak daude oso. Biztanleriaren % 27ak 65 urte baino gehiago ditu. Aparatu horiek funtsezkoak dira, nik ikusten ditu horien eraginak. Mirariak egiten dituzte, badagoelako kirolik egiten ez duen jendea, baina horiek erabiltzen dituena. Berritu eta estali egin behar dira eta gure pertsona nagusien eskaerak entzun behar ditugu. Calistenia parke bat, merkea da eta herritarrek eskatu dute.

Renovación de aparatos de gimnasia también para mayores. Están súper obsoletos. Tenemos el 27% de personas mayores de 65 años. Esos aparatos son vitales, yo veo los efectos que tienen. Hacen milagros, hay gente que no hace deporte y va a esos aparatos y los usa. Hay que renovarlos y cubrirlos, y escuchar lo que piden nuestros mayores. Un parque de calistenia, es económico y es una petición ciudadana.

Hiri bideen eta hiri artekoen inbentarioa. Gauza eman ditzakegu, baina jakin behar dugu zeintzuk diren beharrak. Ez dago, ez dago. Pertsonei zoru-klausulekin laguntzeko informazioa, zoru klausulek zein gainbalioek eragindakoei laguntzeko. Laguntza hori eman beharko genuke. Diru asko gastatzen dena delako proiektuetan eta dena delako aholkularitzetan, baina ez jendearentzako laguntzan, eta administrazioa irekia izan behar da, ezin da horma izan.

Inventario de vías urbanas e interurbanas. Podemos dotar pero hay que saber cuáles son las necesidades. No existe, no existe. Información de apoyo a personas con cláusula suelo, afectada por cláusula suelo y plusvalía. Debiéramos de tener ese apoyo. Gastamos mucho dinero en proyectos-equis o asesorías-equis, pero no en ayudar a la gente, pero la administración debe ser abierta, no debe ser un muro.

Etxebizitzak aniztasun funtzionala duten pertsonentzat ekipatzea, eta uste dut alokairuak ordaintzen ibili garela eta hutsik daudela eta orain beharrizanak ditugula, eskerak daude. Eta horri erantzuna eman behar zaio. Esaten dugu gehiago gastatzen dugula gizarte gaietan. Zer dira gizarte gaiak, gizarte larrialdietarako laguntzak? Eta zer geratzten da etxegabetzeen aurkako protokoloekin? Zergatik kendu dira diru-laguntzak? Gutxi barru, pertsona bat etxegabetuko dute alokairua ez ordaintzeagatik , bizkor ibili gara, pertsonak Lanbidera jo du, baita gizarte-zerbitzuetara ere eta pertsona horrek laguntza behar du.
Doctor Fleming erretiratuen etxean hobekuntzak. Lokalak bereizita daude, bat berritzen ari dira, hain zuzen, irisgarritasun txarrena duena, eta bestea ez.

Equipamiento de pisos para personas con diversidad funcional, y creo que es algo que se ha estado pagando el alquiler y están vacíos y aquí en necesidades, hay demandas. Y eso hay que cubrirlo. Decimos que gastamos más en gasto social. ¿Qué es gasto social, las ayudas de emergencia? ¿Y qué pasa con los protocolos de desahucio? ¿Por qué se han eliminado las subvenciones? Hay un desahucio por alquiler en vista, hemos actuado rápidamente, hemos dado a esta persona, ha acudido a Lanbide, aquí a los servicios sociales, y esa persona necesita ayuda.
Mejoras en el centro de jubilados Doctor Fleming.

Están separados los locales, uno está siendo renovado, que es el que peor accesibilidad tiene, y otro no.

Tenis pista estaltzeko, esana zegoen horri helduko zitzaiola, baina ez geneukan izendun gisa ikusita. Ugarte plaza egin beharra dago, urteak daramatzagu hori entzuten, beraz, zuzki dadila partida eta exekutatu dadila. Oso ahaztua dago. Ellakuri baino lehenago dago, bide batez. Bai, ez, bukatu egingo dut. Mesedez eskatzen dizut bukatzen uzteko. Aurrekontuen eztabaida da hau, ezohiko osokoa, dirudienez, premiazkoa da, baina uzti bukatzen, mesedez eskatzen dizut.

Para cubrir la pista tenis, ya ha dicho que se va a abordar pero no lo habíamos visto en nominativa. La Plaza de Ugarte hay que hacerla, llevamos ya años oyendo esto, que se dote esa partida y se ejecute. Es la gran olvidada. Está antes que Ellakuri, por cierto. Si, no, voy a terminar. Le pido por favor que me deje terminar. Es el debate de Presupuestos, un Pleno extraordinario, se conoce que es urgente, pero déjeme terminar, se lo pido por favor.

Ugarte plaza Ellakuri baino lehenago dago. Ellakuri 600.000 euro. Beharrezkoa da belar artifiziala ipintzea? Mantentze-lanetarako urtean 18.000 euro ordaindu behar baditugu, 10 edo 12 urtean 200.000 izango dira. Izan ere, belar artifiziala amortizatzen da gero eta berriro aldatu behar da. Ez da eraginkorra, baina jarrai ezazue horrekin. Dirudienez, garrantzitsua da hori. Bitartean, San Martinen ez dago harmailarik, ez du aldagela egokirik eta lotsagarria da. Ni, edonola ere, behin baino gehiagotan igo naiz et5a uste dut hori berehala konpondu behar dela.

La Plaza de Ugarte está antes que Ellakuri. Ellakuri 600.000 euros. ¿es necesario, poner una hierba artificial? Si el mantenimiento cuesta 18.000 euros al año por 10 o 12 años son 200.000 en ese período. Que la hierba artificial luego se amortiza y hay que volverla a cambiar. No es eficiente ni eficaz, pero ustedes sigan con eso. Se conoce que eso es importante. Mientras tanto San Martin ni tiene gradas, ni tiene vestuarios acordes, y es una vergüenza. Yo desde luego he subido varias veces y creo que eso hay que abordarlo urgentemente.

Uste dugu Laudioko inausketen eta zuhaitzen inguruko azterlana egin behar dela, uste baitut garrantzitsua dela. herritarrei azaldu dakiela kexa ugari aurkeztu direla horren inguruan. Latiorroko tunel txikia hobetu behar da, pintatu eta despintatu egiten baita pintada asko egiten direlako, eta azkenean, iksuten dugu batzuetan handik igarotzen diren pertsonak kexu direla.

Creemos que hay que hacer un estudio de necesidades sobre el arbolado y poda en Laudio, porque creo que es importante. Que se explique a la ciudadanía que ha habido bastantes quejas de esta cuestión. La mejora del túnel pequeño de Latiorro, que se pinta y se despinta porque hay muchas pintadas, y al final acabamos viendo que en algunas ocasiones las personas que pasan por allí se están quejando.

Kirol esparruak garbitzea eta kontserbatzea, hockey zelaia dagoen lekuan. Gardeako umeen parkea konpontzea eta hobetzea eta, berriro diotsuet, etxegabetze egoeran dauden pertsonentzako diru-laguntza.

Limpieza y conservación de las zonas deportivas, donde está el campo de Hockey. Reparación y mejora del parque infantil en Gardea y, vuelvo a decir, la subvención de las personas en situación de desahucio.

Eta bukatzeko esango dut 2 milioi eta erdi sartu direla diru-kutxako gerakin orokorretan urtearen lehenengo hilabeteetan, eta oso garrantzitsua da hori, ez baitago egoitza berritzeko proiekturik, ezta Zubiko Etxerako proiekturik ere, ezta hainbeste aipatzen dituzuen beste gauza batzuetarako ere, beraz, ba hori. Inbertsioak zuzkitzen dituzue eta ez dago proiekturik. Eta gero, hitz egin behar dugu, EAJren bozeramaileari entzun diot esaten norekin, noiz eta zertarako. Eskerrik asko.

Y termino diciendo que ha habido 2 millones y medio de incorporación al Remanente General de Tesorería en los primeros meses del año, cosa que es muy importante, que no hay proyecto de rehabilitación de la residencia ni proyecto para Zubiko Etxea, ni proyecto para otras cosas que tanto estáis hablando, con lo cual. Dotáis las inversiones y no hay proyecto. Y luego, tenemos que hablar, he oído decir a la portavoz del PNV, con quién, cuándo y para qué. Gracias, eskerrik asko.

Laudio Llodio

**ALKATEA (eus.).-** Alvaro.

**ÁLVARO BARRIOS MEDINA (cast.).-** Sí. Tira, Juanma, eskerrak labur hitz egingo zenutela, izan ere, OMNIAren bozeramaileari kenduta, gainerakoei ezaguna egin zaigu. Alderdi positibo gisa esaten dut, ez negatibo gisa, agerikoa denez, guztiok hitz egin dugulako eta nork bere posizionamenduak azaldu behar ditu.

Baina egia da Maiderren aldetik harritu gaituela aipatu duena, plurala erabili du "EAJri buruzko iritzia eman dugu" esan duenean, eta plurala, bi ginen, eta Iñigok ez du hitza hartu. Berriro diogu, agian ez delako jasota geratu: ez dugu ituna kritikatu, kontrakoa, zilegitasuna aitortzen diogu eta esaten dugu EAJk erabateko zilegitasuna duela akordioak lortzeko, agerikoa denez, 10eko gehiengoa baduelako. Baina aldi berean, egia da finkatu egin dugula EAJk aurrekontuei dagokienez duen ustezko posizionamendua, Maider, zuk justifikatu duzunez, ez zuen abstentzioak balio gure botoa ere justifikatu duzulako. Beraz, uste dut horri dagokionez oreka eta ekitatea dagoela.

Dena den, egia da. Abstentzioak ez du balio gaur egun aurrekontuetan, inplikatu beharra dago. Baina tira, kasu honetan, Maiderrek planteatu duena ikusita, eta aurrekontuei buruz esan duena ikusita, ulertzen dut aldeko botoa ematea, azkenean badirudielako EAJk egin dituela aurrekontuak.
Eta beste barik, iruzkin bat gehiago, kasu honetan, gobernu taldeari, eta ez dut kritika gisa esaten, erne egoteko baizik, agerikoa denez, egon, egon delako beherakada handi bat, milioi batzuk, batez ere, Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeari zegozkion diru-sarrerak jasotzeari utzi diogulako. Jakina, hori da arrazoi nagusia, baina ez dezagun ahaztu, eta positiboki baloratu dugu eta halaxe egin genuen aurrekontuei buruzko lehenengo batzordean, kontua dela diru-sarreren partidetan ere beherakada egon dela, batez ere, udalerriaren jarduera ekonomikoarekin zuzenean erlazionatuta dauden horietan. Ondo dago, eta positibotzat baloratu dugu aurreko urteen kitapenaren arabera doitzea, logikoa delako aurreikuistako diru kopurua biltzen ez bazen, aurrekontu partdia horiek murriztea edo doitzea.

**ALCALDE (eus.).-** Alvaro.

**ÁLVARO BARRIOS MEDINA (cast.).-** Bai. Bueno Juanma, menos mal que iba a ser corta la intervención porque menos al portavoz en este caso de OMNIA, todos los demás nos ha sonado también. Lo digo como positivo, no lo digo como negativo, porque evidentemente todos hemos hablado y tenemos que explicar cada uno nuestros posicionamientos.

Pero sí que es cierto que nos ha sorprendido por parte de Maider lo que ha comentado, ha hablado en plural al hablar de que “hemos opinado sobre el PNV”, y plural, éramos dos, y aquí Iñigo no ha hecho intervención. Volvemos a repetir, por si no ha quedado constancia, no hemos criticado el pacto, al contrario, decimos que es legítimo, y decimos que está totalmente legitimado el PNV para llegar a acuerdos, porque evidentemente la mayoría de 10 la tiene. Pero también es cierto que sí hemos fijado la supuesta posición del PNV ante los Presupuesto, Maider, como tú has justificado, no valía la abstención porque también has justificado nuestro voto. Entonces creo que en ese sentido hay equilibrio y hay equidad.

Ahora bien, sí que es cierto. No sirve la abstención a día de hoy en los Presupuestos y sí que implica mojarse. Pero bueno, en este caso también entiendo que tal y como ha planteado Maider, y tal y como ha dicho todo lo de los Presupuestos, normal que se vote a favor, porque al final parece que los Presupuestos los ha hecho el PNV.
Simplemente por un comentario más, en este caso al equipo de gobierno, no lo digo como crítica sino como estar atentos, ya que evidentemente sí que ha habido una disminución importante en varios millones de euros del presupuesto debido principalmente a la ausencia de ingresos por el Centro Municipal de Formación Profesional. Por supuesto que esa es la razón principal, pero no nos olvidemos, y hemos valorado como positivo y así lo hicimos en la primera Comisión de Presupuestos, el hecho de que también se han disminuido ciertas partidas de ingresos, sobre todo las directamente relacionadas con la actividad económica del municipio. Está bien, y así lo hemos valorado como positivo, que se ajusten en función de la liquidación de años anteriores, porque es lógico que si no se recaudaba lo que se

tenía presupuestado recaudar, se reduzcan y se ajusten esas partidas presupuestarias.

Eta beste barik, arreta deitu nahi genion gobernu taldeari, erne egon dadila partida horien murrizketarekin gertatzen ari den joera-finkatzeari dagokionez. Ikusi beharko dugu nora goazen, zein diren adierazleak eta norantz doan udalerriko ekonomia. Izan ere, agerikoa denez, joera horrek luzera jotzen badu, konponbideak jarri beharko genituzke inflexio puntu hori aldatzen jarraitzeko eta ekonomiak gora egin dezan lortzeko. Izan ere, berriro diogu: EJZ bezalako adierazleak dira, eskualdatze-zerga bezalakoak, nolabait esateko udalerriaren osasun ekonomikoari buruzko adierazleak finkatzen dituztenak. Beste barik, arreta dei gisa.

Y simplemente el toque de atención al Equipo de gobierno para estar vigilante en la tendencia que se está fijando con esa reducción de esas partidas. Ver hacia dónde vamos, vemos cuáles son los indicadores y hacia dónde va la economía de este municipio. Porque, evidentemente, si la tendencia continúa en el tiempo, deberíamos poner soluciones para intentar cambiar ese punto de inflexión y que la economía vuelva a remontar. Ya que, insistimos, son aquellos indicadores como el IAE, como el Impuesto de Transmisiones, varios de los elementos importante que fijan nuestro, vamos a llamar, indicadores de cómo puede ir la salud económica del municipio. Simplemente como toque de atención.

**ALKATEA (eus.).-** Eskerrik asko. PNV, Maider.

**ALCALDE (eus.).-** Eskerrik asko. EAJ, Maider.

**MAIDER BASTERRA IBARRETXE (cast.).-** Eskerrik asko, Natxo. Bozeramaile guztiei erantzuten saiatuko naiz. Bada, bai, OMNIAz zein PSEz hitz egin dut. Guk publikoki esan aurretik ere, justifikatuta zuten, edo esana zuten aurrekontua hasieratik itundua genuela EH Bildurekin. Nik esan egin dut zein den EAJren jarrera ofiziala eta bi asteotan izan dugun barne-prozesua, hausnarketa sakona eta hala da eta hala jarraitzen du izaten. Eta abstentziora jotzeko nahiz alde bokzatzeko aukerak aztertu ditugu, eta, agerikoa denez, azkenean, publikoki esan dugunez, aldeko botoa emango dugu, behin haztatuta bi espedienteen alde bozkatzeko kontuan hartu ditugun alderdiak. Izan ere, aurrekontua aurrekontu izateaz gain, inbertsioen espedientea ere bada.

**MAIDER BASTERRA IBARRETXE (cast.).-** Eskerrik asko, Natxo. Voy a intentar contestar a todos los portavoces. Pues sí, yo he hablado tanto de OMNIA como el PSE. Antes de nosotros decirlo públicamente, han justificado, o han dicho que este Presupuesto estaba acordado o pactado de inicio con EH Bildu. Yo he dicho cuál es la postura oficial del PNV y el período de reflexión interna y profunda que hemos tenido en estas 2 semanas y es así, y sigue siendo así. Y hemos barajado la posibilidad de abstenernos o la posibilidad de apoyarlos, y obviamente al final, como hemos dicho públicamente que los vamos a apoyar, pues hemos puesto en la balanza las cuestiones que hemos considerado para haber votado a favor de ambos expedientes. Porque el Presupuesto es Presupuesto ordinario más el expediente de inversiones también.

Gero, OMNIAren bozeramaileak esandakoa gezurtatuko dut, esan baitu *"aurrekontua luzatzearekin balio zuela."* Ez, ez, ez. Ez dituzte aztertu urtarrileko, otsaileko eta martxoko espedienteak, kredituak gehitzekoak, 2016ko aurrekontu-itunetik gerakinen kontura baina exekutatu gabe geratu ziren partida guztiak erantsi direlako.
Abenduaren 31n 7.875.041,34 euro genituen eta martxoaren 3an, kredituak aldatzeko azken espedientearen ondoren, 3.207.525,72 euro. 4,5

Luego, voy a desmentir al portavoz de OMNIA en el sentido de que ha dicho que "*con prórroga presupuestaria valía*". NO, no, no. No se han mirado los últimos expedientes de incorporación de créditos que ha habido en enero, febrero y marzo porque se han incorporado todas las partidas que estaban sin ejecutarse del acuerdo presupuestario de 2016 con cargo a remanente.
Teníamos el 31 de diciembre 7.875.041,34 euros y a fecha 3 de marzo con el último expediente de modificación de crédito tenemos 3.207.525,72

milioi euro jaitsi da, eta zati garrantzitsu horretakoak dira 2016an konprometitutako inbertsioak.

euros. Ha bajado 4,5 millones de euros, y de esa parte importante son inversiones comprometidas del 2016.

2017ko aurrekontu berriarekin, 2017rako inbertsioak ditugu. 2017ko 4 milioi eta 2016an exekutatu gabe zeuden 2 milioi baino gehiago edo 3 ditugu. Hau da, aurrekontua luzatzea ez zen nahikoa, 2017an partida berriak ditugulako. Erantzuna eman nahi nion erantzuna publikoki jasota gera zedin, publikoki jasota gera zedin 2016 eta 2016ko aurrekontuei dagokienez egin dugun azterketa sakona, aurrekontua luzatzea, agerian geratu denez, ez litzatekeelako nahikoa izango.

Gero, Esukadiko Alderdi Sozialistari erantzuteko 1. atalaren eta langileria gastuen gaiari dagokionez. Koherenteki jokatu behar dugu. Guk hitzarmenaren alde egin genuen, negoziazioaen alde eta, batez, ere soldaten inguruko aldarrikapenak eta, batez ere, funtzionarioek galdu duten erosahalmena berreskuratzearen alde. Eta etxe honetako funtzionarioak dira, hain zuzen ere, espedienteak landu eta izapidetzen dituztenak. Ez dira soilik herritarrentzako inbertsioak izango. Hori zuzena da, jakina, Laudiorekiko konpromisoa da, baina gure espedienteak lantzen dituzten udal langileak ere zaindu eta maimatu behar ditugu, pleguak egiten dituzte, gaiak Tokiko Gobernu Batzarretara eramaten dituzte, informazioa ematen digute, kezkatu egiten dira eta Laudioko inbertsioen zutabe eta zati garrantzitsua dira. Uste dugu bidezkoak eta zintzoak izan behar dugula eta horrelaxe esango dugu.

Con el nuevo presupuesto de 2017 tenemos inversiones para 2017. Tenemos 4 millones de 2017 más 2 millones y pico o 3 que están sin ejecutarse del 2016. O sea, con prórroga presupuestaria no valía, porque tenemos partidas nuevas en el 2017. Simplemente contestarle para que quede públicamente la contestación y el análisis tan exhaustivo que también se ha hecho de inversiones del 2016 más el 2017, que prórroga presupuestaria no hubiéramos tenido, obviamente.

Luego para contestar al Partido Socialista de Euskadi con el tema del capítulo 1 y los gastos de personal. Nosotros tenemos que ser coherentes. Nosotros apoyamos el convenio, apoyamos las negociaciones, y apoyamos sobre todo las reivindicaciones salariales y la reivindicación, sobre todo, de recuperación de pérdida de derecho adquisitivo de los funcionarios. Y son precisamente los funcionarios de esta casa los que trabajan en los expedientes y los que tramitan. No sólo van a ser inversiones para la ciudadanía. Eso es correcto, claro, es compromiso hacia Laudio, pero también tenemos que mimar y cuidar a los trabajadores municipales que trabajan en nuestros expedientes, que hacen los pliegos, que llevan los asuntos a Junta de Gobierno, a Pleno, que informan, que se preocupan y que también son parte y un pilar importante para la ejecución de inversiones en Laudio. Creemos que hay que ser justos y honestos y también lo  vamos decir así.

Eta azken hausnarketa bat, Conexiones Improbables enpresak herritarren parte hartzerako prestatu zuen prozesuari dagokionez; nik uste dut hemen arazo bat egon zela, ez dakit ulermen falta egon zen, uste baikenuen Lamuza parkeko eraikinen erabilerari buruzko eztabaida zela. Kontsultoria enpresa horrek edo Laudioko plataformak egin duen saltoa da Laudioko eraikinen erabilerari buruzko hausnarketa bat, dagoeneko EH Bildurekin konprometituta eta adostuta daudenak. EH Bildu eta EAJren arteko akordioaren aurrekoa da eta Zubiko Etxeari, Altzarrateko Antzokiari, egoitza zaharreko Musika Etxeari buruzkoa.

Beraz, ez dugu inor engainatu eta uste dugu oso ondo gastatutako dirua dela, gure ustez, eta halaxe esan genuen bere garaian, parkeko eraikinetarako

Y una última reflexión, respecto al proceso participativo que ha comentado Alvaro de “Conexiones Improbables”, yo creo que aquí hubo un problema, no sé si hubo falta de entendimiento, que creíamos que era un debate de usos para los edificios del Parque de Lamuza. El salto que ha hecho esa consultoría o el salto que ha hecho la propia plataforma a Laudio, es una reflexión sobre el debate de edificios de Laudio que ya estaban pactados y ya estaban comprometidos con EH Bildu. Fue previo el acuerdo de EH Bildu y PNV y respecto a Zubiko Etxea, respecto al Antzoki de Altzarrate, respecto a la rehabilitación para Musika Etxea de la antigua residencia.

Por lo tanto, no hemos engañado a nadie y creemos que es un dinero muy bien gastado, a nuestro juicio ya lo trasmitimos así, tenía que

izan behar zuen, hori eskatu baitzigun plataformak hasiera batena, aurrekontu-partida hori zuzkitzea. Eta uste genuen horretarako izango zela. Uste dut denei erantzun diedala horrekin. Eskerrik asko.

**ALKATEA (eus.).-** Eskerrik asko, Maider. Beraz, beste barik, bozkatzeari ekingo diogu.

**Bozkatuta, ez onartu da gehiengoz eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

- **Alde:**
  **EH BILDU (5)** Jon Iñaki Urkixo Orueta, Amets Meatza Castañares, Iñigo Martinez Cerrillo, Isabel Bóveda Urioste, Jon Ander Altube Lazkano
  **EAJ-PNV (5)** Juanma Ibarretxe Revuelta, Maider Basterra Ibarretxe, Ander Añibarro Maestre, Eva Marquínez Blanco, Izaskun Miñano Larrea

- **KOntra:**
  **OMNIA (4)** Álvaro Barrios Medina, Nerea Gonzalez Garcia, Jakinda Artaraz Martín, Aitor Anchia Escobar
  **PSEE-EE (2)** Txaro Sarasua Diaz, María Dolores Muriel Aroca
  **PP (1)** Iñigo Pedruzo Abasolo

**55.- 2017KO UDAL AURREKONTUKO 11/17 ZENBAKIDUN KREDITUEN ALDAKETA ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIAK EMATEAGATIK.**

Alkatetza-udalburutzak eskatuta, Ogasun eta Ondare Arloan izapidetuta ari da espedientea 2017ko udal aurrekontuko kredituen Aldaketa espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, hain zuzen, 11/17 zenbakia duena, ebazpen honen erabakien zatian jasota dagoen zehaztasunarekin.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluak aurreikusten duenez, kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio, zainpeturiko ordainketa kredituriк eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabalezina bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean,hurrengo ataletan adieraziko diren arauen arabera, zeintzuk jasota dagoen betearaziak izan direla.

haber sido para los edificios del parque que para eso en principio se nos pidió por parte de la Plataforma la dotación de esa partida presupuestaria. Y para eso, en principio, creíamos que era. Simplemente para contestar, creo que a todos. Eskerrik asko.

**ALCALDE (eus.).-** Eskerrik asko, Maider. Por tanto, vamos a proceder a la votación.

**Sometida a votación, es aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:**

- **A favor:**
  **EH BILDU (5)** Jon Iñaki Urkixo Orueta, Amets Meatza Castañares, Iñigo Martinez Cerrillo, Isabel Bóveda Urioste, Jon Ander Altube Lazkano
  **EAJ-PNV (5)** Juanma Ibarretxe Revuelta, Maider Basterra Ibarretxe, Ander Añibarro Maestre, Eva Marquínez Blanco, Izaskun Miñano Larrea

- **En contra:**
  **OMNIA (4)** Álvaro Barrios Medina, Nerea Gonzalez Garcia, Jakinda Artaraz Martín, Aitor Anchia Escobar
  **PSEE-EE (2)** Txaro Sarasua Diaz, María Dolores Muriel Aroca
  **PP (1)** Iñigo Pedruzo Abasolo

**55.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL PARA 2017, POR CONCESIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES, Nº 11/17.**

A instancias de la Alcaldía-presidencia, en el Área de Hacienda y Patrimonio se tramita expediente de modificación de créditos del presupuesto municipal para 2017, por concesión de créditos adicionales, número 11/17, con el detalle que en la parte dispositiva de esta resolución se recoge.

El artículo 34 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, dice que se recurrirá al trámite de concesión de crédito adicional en el caso de tener que realizarse algún gasto para el que no exista crédito de pago consignado, o si existiendo éste fuera insuficiente y no ampliable, y no fuese posible su cobertura en virtud del régimen de modificaciones regulado en citada Norma, estableciendo a continuación los requisitos y condiciones que han de observarse en la tramitación del expediente de modificación por concesión de créditos adicionales, que consta en el expediente se han

cumplimentado.

Kontuan izanik egiaztatzen dela espedientean hala gastuaren beharrizana nola finantzabidearen eskuragarritasuna.

En el expediente se acredita tanto la necesidad del gasto como la disponibilidad de la financiación.

3/2004 Foru Arauko 34.3 artikuluan eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauko 20-4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera espedientea onartzeko eskumena Udalbatzarraren Osoko Bilkurari dagokio.

La competencia para la aprobación del expediente reside en el Pleno de la Corporación, conforme a lo previsto en el artículo 34.3 de la Norma Foral 3/2004 y en el artículo 20-4 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

Informazioa eskaini, erreklamazioak, publizitatea eta errekurtsoei buruz aipatu den Foru Arau horretako 15., 17. eta 18. artikuluak dira aplizioko.

En lo relativo a información, reclamaciones, publicidad y recursos son de aplicación los artículos 15, 17 y 18 de dicha Norma Foral.

Arestiko guztiagatik, Ogasun eta Ondare Arloko goi mailako teknikariak eta alkate-udalburuak proposatuta, arlo horretako zinegotzi ordezkari laguntzailearen bidez, Ogasun eta Ondare Arloko nahiz Funtzio Publiko eta Lan Harremanen Arloko Informazio Batzordearen Jarraipen Batzordearen aurretiko irizpenaz, Udalbatzako Osoko Bilkurak

Por todo lo anterior, a propuesta de la técnica superior del Área de Hacienda y Patrimonio y del alcalde-presidente, a través de la concejala delegada adjunta de dicha área, previo dictamen de la Comisión Informativa y Comisión de Seguimiento de las Áreas de Hacienda y Patrimonio y de Función Pública y Relaciones Laborales, el Ayuntamiento-Pleno,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

LEHENENGO.- Onartzea 2017ko udal aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, 11/17 kreditu gehigarria emanez:

PRIMERO.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del presupuesto municipal para 2017, por concesión de créditos adicionales, número 11/17:

Kreditu gehigarriak

Créditos adicionales

| Partida | Izendapena / Denominación | Euro zenbatekoa gehigarria / Importe adicional euros |
|---|---|---|
| 0500-3331-622.20 | Egoitza zaharra eraberritzea (OZFP) / Reforma antigua residencia (PFOS) | 2.080.680,00 |
| 0500-1533-601.14 | Ugarte plaza eraberritzea / Reforma plaza Ugarte | 251.000,00 |
| 0500-1535-609.06 | Parkeetarako estalkiak / Cubierta parques | 160.742,00 |
| | Kreditu gehigarriak guztira / Total créditos adicionales | 2.492.422,00 |

Finantzazioa

Financiación

2016ko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren aplikazioz

Por aplicación del remanente de tesorería para gastos generales al 31 de diciembre de 2016

| Subconcepto | Izendapena / Denominación | Euro zenbatekoa / Importe euros |
|---|---|---|
| 870.01 | 2016ko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren aplikazioz / Aplicación remanente tesorería para gastos generales a 31 de diciembre de 2016 | 2.492.422,00 |
| | Guztira finantzaketa / Total financiación | 2.492.422,00 |

BIGARRENA.- Kreditu gehigarriak emanez 2017ko udal aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzean, kontu hartzaileak esan du, 2017ko apirilaren 3 eguneko txostenean, aldaketa ez dela aintzat hartzen defizitaren eta aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzeko. ezta gastuaren araua betetzeko, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu-Egonkortasuna eta Finantza Jasangarritasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluaren 5. atalak xedatzen duen moduan (ekainaren 18ko 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan). Gainera, Laudioko Udalak ez du zor bizirik, ezta zortzeko deirik, indarrean dagoen aurrekontuan. Beraz, Diruzaintzako gerakina kreditu gehigarriak finantzatzeko erabil daiteke, aipatutako 38/2013 Foru Arauaren 8.4 artikulua). Udal kontu hartzailetzaren txostenak dio, gainera, horren berri eman beharko zaiola Udalbatzarraren Osoko bilkurari eta gero, Arabako Foru Aldundira bidaltzea Osoko bilkurako akta, Kontu Hartzailetza organoko txostenarekin batera eta euskarri legez balio dezakeen gainerako dokumentazioarekin batera, hain zuzen ere, gaiaren arabera eskumena duen Toki Administrazio Sailera.

SEGUNDO.- En la tramitación de este expediente de modificación del presupuesto municipal para 2017, por concesión de créditos adicionales, la interventora municipal, en informe de fecha 3 de abril de 2017, tras indicar que dicha modificación no computa para la aplicación del objetivo de déficit y estabilidad presupuestaria ni para el cumplimiento de la regla del gasto, según dispone el apartado 5 del artículo 7 de la Norma Foral 38/2013, de 13 de diciembre, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera de las Entidades Locales de Álava (en la redacción dada por la Norma Foral 17/2014, de 18 de junio) y que, al no tener el Ayuntamiento de Llodio deuda viva ni apelación al endeudamiento en el presupuesto vigente, el remanente de tesorería puede destinarse a financiar créditos adicionales (art. 8.4 de la Norma Foral 38/2013, citada), señala que deberá procederse del modo indicado en el artículo 7.3 de la mencionada Norma Foral, esto es, habrá de comunicarse al Pleno de la Corporación citado informe y posteriormente remitir a la Diputación Foral de Álava el acta de la reunión del Pleno, junto con el informe del órgano de Intervención y demás documentación que sirva de soporte, en concreto al Departamento de Administración Local, competente por razón de la materia.

Hala eta guztiz ere, 7.3 artikuluak aipatzen du *aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea Diruzaintzako Gerakinekin inbertsio gastuak finantzatzeagatik*. Kontu hartzailearen txostenaren arabera, egoera hori ez dago espedientean, beraz ez da izapide hori bete behar.

Sin embargo dicho artículo 7.3 se refiere al supuesto de *incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria* y que éste *se deba a la financiación de gastos de inversión con Remanente de Tesorería*, situación que, según el citado informe de la interventora municipal, no se da en este expediente, por lo que no procede la realización de tal trámite.

HIRUGARRENA.- Laudio Udaleko 2017rako aurrekontu aldatzeko 11/17 zenbakia duen espedientea jendaurrean erakutsiko da hamabost (15) lan eguneko epean zehar, aldez aurretik ALHAOn eta udaletxeko iragarkien oholean erabaki honen iragarkia argitaratuko da, Osokoari erreklamazioa eta arrazoibideak aurkeztu ahal izateko.

TERCERO.- El expediente de modificación del presupuesto del Ayuntamiento de Llodio para el ejercicio 2017, número 11/17, será expuesto al público por plazo de quince (15) días hábiles, previo anuncio que se insertará en el BOTHA y en el tablón de anuncios del ayuntamiento, a efectos de reclamaciones ante el Pleno.

LAUGARRENA.- Erabaki hau behin betiko onartutzat joko da jendaurreko erakusketa aldian zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten eta indarrean sartuko, edo indarra hartuko du, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 16. artikuluan erabakitakoa bete ondoren. Erreklamaziorik badago, Osokoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

CUARTO.- Este acuerdo, de no producirse reclamaciones contra el mismo durante el plazo de exposición pública, se entenderá definitivamente aprobado, entrando en vigor una vez cumplido lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava. De

**ALKATEA (eus.).-** Beno, aurreko puntuan mauka zabala eduki dut denborarekin, egokia iruditu zaidalako. Oraingoan, mesedez, eskatzen dizuet zuei zuek izatea neurtzen duzuen eta ez

**ALCALDE (eus.).-** Bueno, en el punto anterior he sido generoso con el tiempo, porque me ha parecido adecuado. En esta ocasión, por favor, os pido que os midáis y no os extendáis demasiado,

luzatzeko, egiteko beste batzuk gaurko plenoan egin duten moduan. Iñigo.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Ez dakit akats bat topatu dudan, uste dut hemen ipintzen duela 2015ean % 1eko igoera dagoela, 190,33euro. 2016an, KPI 1etik gorakoa bada, eta hala uste dut, 705,43 euro ordainduko dira. Eta 2017rako, KPI 1etik gorakoa bada, Y ezezagun matematikoa. Diot, ez dago…

**JON ANDER ALTUBE LAZKANO (cast.).-** Galdetzen ari zara zein izango den? Uste dut agian ulertu dizugula. 2017an erabiliko den erreferentziaz ari bazara, adostutakoarekin bat, 2016ko datu itxia erabiliko dela uste dut. Beraz, ez litzateke ezezaguna izango, ezaguna izangpo litzatekeelako une horretan. Y ezezaguna zela esan duzu… Ez, 2017arekiko aplikatu behar den igoera kalkulatzeko erabiltzen den adierazlea 2016ko abenduaren 31n dagoen KPI itxia da. Beraz, ez dago datu ezazagunik, datu zehatza da, kuantifikatua, eta aurrekontuen zirriborroan hala jaso da.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Esan dut hitzarmenean ez zelako agertzen. Ados. Ez dut beste ekarpenik.

**ALKATEA (eus.).-** Eskerrik asko. Alderdi Sozialista.

**TXARO SARASUA DÍAZ (gazt.).-** Bai. Udal aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea baloratzen ari garelakoan nago, ezta? Ados. Tira, guk ulertzen dugunez, gobernu taldeak egiten duen proposamena da, baina azalduko dugu zergatik ez gatozen bat.

Lehenik eta behin: egoitza zaharraren birgaitzea. Duela asko esaten gabiltza eraikina zaharra dela, eta bere garaian osasun mentaleko zentro bat izateko eztabaida egon zen. Ni orduan Gaixotasun Mentalak dituzten Pertsonen Euskadiko Federazioan egiten nuen lan. Orduan alkate zen Menoyo jaunarekin egon ginen harremanetan. Osasun mentaleko zentro hori eta eguneko zentro bat egiteko aukera, biak ala biak beharrezkoak eskualde honetan, eta azkenean, Laudion lanean

que no os extendáis como ha ocurrido en algunas ocasiones en este pleno. Iñigo.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Creo, no sé si he encontrado una errata, aquí en el año 2015 aparece que hay un incremento del 1%, 190,33euros. En el año 2016, si el IPC es mayor que 1, supongo que será, se va a pagar 705,43 euros. Y en el año 2017, si el IPC es mayor que1 aparece una incógnita matemática Y. Digo, no hay…

**JON ANDER ALTUBE LAZKANO (cast.).-** ¿Preguntas por cuál va a ser? Creo que, a lo mejor te hemos entendido. Te refieres a ver qué referencia se va a utilizar en el año 2017, creo que se va a utilizar el dato, porque así es lo que está pactado, el dato cerrado del año 2016. Por lo tanto, no sería una incógnita porque ya se conocería. Hablabas de la Y como incógnita,… no, el incremento entiendo que el indicador que se utiliza para calcular el incremento respecto al año 2017 es el IPC cerrado a 31 de diciembre de 2016. Por lo tanto, no hay incógnita, es un dato cierto, cuantificado y que se refleja en el borrador de Presupuestos.

**IÑIGO PEDRUZO ABASOLO (cast.).-** Lo decía porque no aparecía en el acuerdo. Vale. No tengo más que aportar.

**ALCALDE (eus.).-** Eskerrik asko. Partido Socialista.

